

PORRONTXO JAIAK

2023 urteak berri onak ekarri dizkigu. Alde batetik, iraganeko indarrak berreskuratzen ari garen sentsazio gero eta nabarmenagoa dugu. Horren erakusle egun daukagun kuadrila kopurua: 45 koadrila aktibo gara (ez dezagun ahaztu). Lanean, gau eta egun, jarduten duten batzordekideen kopuruak ere gora egin du, 2022tik zetorren lan taldeak jendea eskatu zuen (bost ginen) eta auzoak ederki erantzun ere. Biba zuek!

Urtea amaitzearekin, 2024aren lehenengo printzak iritsiko zaizkigu, eta, uste baino lehen, Porrontxo Jaien atarian izango gara berriro. Beraz, 2024ra begira, jaiak partehartzaile eta osasuntsu izatea espero dugu. Partehartzaileak, koadrilen indar eta lanik gabe ez garelako ezer; osasuntsuak, sinetsita baigande batzordekideen eta jaiak antolatzen dituzten izen horien ahaleginek dagokien zaintza merezi dutela. Batzuk doazen eran, bestetzu datoz. Bada bueltan datorrenik ere. Edonola, 2024 URTE ZORIONTSUA OPA DIZUGU EGIA!

2023 ha sido buen año. Lo hemos vivido con la sensación de ir recuperando las fuerzas de antaño. Muestra de ello, el número de cuadrillas: ahora mismo somos 45 cuadrillas activas. El equipo de trabajo que venía funcionando desde 2022 pidió ayuda, y bien que respondió el barrio.


Para 2024, tenemos la confianza de que Porrontxos sean fiestas participativas y saludables. Participativas, porque sin la energía y labor de las cuadrillas no somos nada. Y saludables, porque queremos que a la gente que pone su fuerza en organizar las fiestas la cuidemos con todo el cariño.



Gordegia

Kaixo, egitarrok:

Denbora aurrera doa, eta poliki-poliki GORDEGIA bere bosgarren urtea betetzera doa. Aurten ere ez gara iritsi nahi genuen guztia egitera, baina, tira, datozen urteetarako zerbait utzi beharko da, ezta? Egin ditugun ekimenak oso zabalkunde handikoak izan ez badira ere, atera dira gauza interesgarriak:



- Maria Reina eta Aitorreko ikasleekin unitate didaktiko bat landu dugu, hainbat egunetan auzoko historia ezagutzeko. Urtero errepikatzen asmoa daukagu, eta Lau Haizetara zabaldu nahi dugu, Intxaurrondoko jendearekin elkarlanean.
- Enara Varea Letona dokumental bat grabatzen ari da Egiako euskalduntze-prozesuari buruz.
- Unibertsitateko beste praktikalari batekin auzoko immigrazioaren historia landu nahi dugu.
- Xabi Abalde eta Nora Blanco argazkilariek Porrontxoetako argazki-bilduma pasatu digute, eta gauza bera egin nahi dute aurrerantzean auzoan antolatzen diren gainerako ekimenekin ere.
- Porrontxoetan eta Egialaren garagardo-ferian irudi-erakusketak montatu genituen Plaza Handin.
- Auzoko argazki zaharren bila, San Telmo museoa eta Nafarroako Artxibategia arakatu ditugu. Horrez gain, Irutxuloko Hitzak 2015etik aurrerako argazkiak pasatu dizkigu.
- Gure webgunea etengabe aldatzen eta eguneratzen jarraitzen dugu, eta bertako irudiak hainbat talderen eskura jarri ditugu, haien ekimenetan erabiltzeko.

Horiek egindakoak, baina zakua asmoz beteta daukagu datorren urterako: erakusketak, hainbat lekuren apainketak...

Eta ez ahaztu, 2024ko EGUTEGIA kalean dago! KORRI SEGITUAN EROSTERA!

GORDEGIA es el archivo gráfico de la historia del barrio (gordegia.eus). Ya en su quinto año de vida, sigue recopilando material gráfico de la vida e historia del barrio en toda su diversidad, y sigue dándole difusión: entre otras actividades, hemos preparado una unidad didáctica con el alumnado de Aitor Ikastola y Maria Reina Eskola, para que conozcan la historia de Egi; hemos recopilado fotos viejas en el Museo San Telmo y en el archivo de Navarra.

Y este año también hemos puesto a la venta en las tiendas del barrio el calendario de 2024.

Kantu jira



Aurreko urteko abenduaren 3an, 5. urteari eman genion ongiatorria. Ekitaldi txiki bat antolatu genuen Ostotsaren parean. Musikari eta hileko lehenengo larunbatean batzen den jendea eskertzeaz gain, Egia Kantuz aurrera eramatea ahalbidetzen duten zenbait laguntzaileen lana goraiatu genuen. Iñaki Revueltaren ahotsak edertu zuen ospakizuna. Aurtengo abenduaren 2an bost urte bete ditugu, eta ezin dugu urte hauetan zehar Ostotxako Patxi Ibañezen lankidetzara aipatu gabe utzi. Orain, nahiz eta pertsiana jaitzita egon, handik pasatzen garen bakoitzean zutaz gogoratuko gara. Hasiera ez zen erraza izan, baina maitasunez landutako eta botilaratutako ardo ona bezala, garai horietaz ditugun oroimen politak ez dira ozpinduko. Mila esker eta besarkada handi bat, lagun.

El pasado dos de diciembre celebramos el quinto año de actividad de Kantu jira en el barrio, y no queremos dejar pasar la ocasión sin mencionar la gran ayuda que nos ha dado en todo este tiempo Patxi Ibañez, de Ostotxa taberna. Seguiremos alegrando el barrio con nuestras canciones el primer sábado de cada mes.

Azoka Txikia

Aupa Egia! Gezurra dirudien arren, lau urte betetzera doaz Iruresoro Pasabidean astelehenera ilara luzeak egin eta ekoizleei zuzenean bertako produktuak erosten hasi ginenetik. Azoka Txikiak txiki izaten jarraitzen du baina asko hazi da urte hauetan. Kokapena Plaza Berrira aldatu genuen, bertako eta garaiko produktuz elikatu dugu proiektua eta azoka berezi zein egitasmo ezberdinek eman diote izaera egitasmoari. Honengatik guztiagatik, Azoka Txikiko lan-taldearen ize-nean eskerrik asko proiektuari emandako babesagatik, izan ekoizle zein kontsumitzaile. Astelehenera, bertako, garaiko eta kalitatezko produktuak erosi eta auzoko komunitatea sortzen ikustea oso pozgarria da. Jarrai dezagun elkarrekin elikadura burujabetzarantz haziak eriten eta auzo komunitatearen uztaz gozatzeko!



SOS Trebeska Dantza Taldea

1 976. urtetik ari da Trebeska Dantza Taldea Egian dantzak egin eta irakasten. Aurten larri gabilta dantza taldea osatzeko. Euskal Herriko zazpi lurraldeetako dantzak ikasiko ditugu, zeretik hasita, baina horretarako jendea behar dugu. Asteazkenetan egiten ditugu entseguak 19:45etatik 21:30tara. Beraz, dei egiten dizuegu auzoko zein kanpoko gazteei, euskal dantzetan interesik baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan info@trebeska.eus helbidean edo Trebeskaren sare sozialen bitartez.

Horrez gain, Trebeska Txikin 100 ume baino gehiago dabilta Aitor Ikastolan ematen ditugun ikastaroetan. Auzoko haurrak euskal dantzetara gerturaten jarraitzen dugu beste ikasturte batez ikastolarekin elkarlanean.

Gainera, plaza dantzen ikastaroak gorako joeran jarraitzen du eta aurten 70 lagunetik gora gabilta. Astelehenero elkartzen gara 3 taldetan banatuta. Egon adi hurrengo ikasturtean izena emateko!

Beraz euskal dantzak gustatuz gero, ez izan zalantzarik eta animatu taldera; ongi etorri goxoa egingo dizugu!

Trebeska dantza taldea lleva desde 1976 enseñando euskal dantza en Egia. Este año andamos justos para formar el grupo de baile. Tenemos ensayo los miércoles de 19:45 a 21:30. Animamos a la juventud, tanto del barrio como de fuera, a acercarse. Aprendemos danzas de los siete territorios de Euskal Herria. Para contactar: info@trebeska.eus o en las redes sociales de Trebeska.

Ademas del grupo de baile, en Trebeska Txikia más de 100 infantes toman parte en los cursillos que damos en Aitor ikastola.

Las sesiones de danzas de plaza de los lunes van viento en popa. Este año somos mas de 70 personas, sin limite de edad, las que andamos disfrutando y aprendiendo los bailes de plaza.



Antxeta Ttanttakun elkarte




Egia auzoan dagoen haur eta gazteentzako aisialdi taldea da. Momentu honetan 11 hezitzailek osatzen dugu taldea eta gure ekintzetan 2 urtetik 17 urtera arteko haur eta gazteek hartzen dute parte. Jarduera nabarmenak dira udaleku irekiak, kanpa eta Abenturaz blai; urtean zehar beste hainbat jarduera ere egiten ditugu: irteerak, Arimen gaua, Gabonak zuretzat...

Antxeta Ttanttakunek aurten 40 urte bete ditu, eta ospatzeko Porrontxo jaietako txupina bota genuen eta abenduaren 16an 40. urteurrena ospatu dugu.

Grupa de tiempo libre para infantes y jóvenes del barrio. Equipo formado por 11 personas educadoras, toman parte en nuestras actividades infantiles y jóvenes entre 2 y 17 años. Actividades destacadas: udalekus abiertos, acampada y Abenturaz Blai; a lo largo del año organizamos salidas, Arimen gaua, Gabonak zuretzat...

Este año hemos cumplido los 40 de existencia, y para celebrarlo hechamos el txupin de Porrontxo jaiak y organizamos un día de celebración el 16 de diciembre.

Xabier Mendi Kirol Elkarte



Abenduan urtea bete dugu Rokodromo berria martxan. Emaitzarekin pozik gauden arren, bada zer hobetu: sartzeko behar den txartel kopurua ez da nahikoa, bazkide bakoitzak bana edukitzea beharrezkoa deritzogu, aireztapenak ez du funtzionatzen eta uraren temperatura ezin dugu erregulatu, beroegia irteten delarik. Udalaren esku dago arazo hauei irtenbidea ematea.

Bestalde ilusioz jakinarazten dizkizuegu 2024 urterako XMKEk antolatutako ditugun irteerak, bazkide zein mendizale orori irekiak:

- Urtarrilak 27-28: asteburu pasa iraupen zein alpino eskian aritzeko. Frantziako Azun bailaran. Oharra: izena emateko azken data abenduaren 2a da. Umeak 5-6 urtetik gorakoak. Bertaratzeko autoetan antolatuko gara (ez da autobusik jarriko). Gaua Centre de Vacances La Salamandre aterpetxean pasako dugu (afaria eta gosaria barne). Informazio gehiago telefono honetan: 652757003 (Rai).
- Maiatzak 12: Boulder eskalada modalitatean aritzeko egunpasa Jaizkibelen.
- Irailak 15: eskalada egunpasa Eginon.
- Azaroak 19: Aritxulegin mendi irteera eta ondoren babarrun jana.

Un año ya con el nuevo rocodromo en marcha. hay satisfacción, pero quedan cosas que mejorar que dependen del ayuntamiento: tarjetas de entrada al local, aireación de la misma, temperatura del agua de los baños... Ya esta definido el calendario de 2024.

dxabiermke@gmail.com

Egia Zeinuka

Gorria gizartean ikusezina den desgaitasuna da. Entzumen urritasuna duten pertsonak, urritasun maila ezberdinak izan ditzakete eta pertsonaren arabera komunikatzeko zailtasun gehiago edo gutxiago, baina denek badute zerbait amankomunean: informazioa eskura ez izatea; eta hori da haien guztien oztopo nagusia eta horrek berak isolatzen ditu gehien.

Haien errealitatera hurbiltzeko eta ikusarazteko, Egia Zeinuka ekimenari hasiera eman genien duela sei urte. Gorrien eta entzuleen artean komunikazio espazioak irabazi asmoz zeinu-poteo arrakastatsuak antolatu izan ditugu. Bestetik, pertsona gor batek gidatuta, zeinu hizkuntza modu erraz eta naturalean ikasteko ikastaroak martxan ditugu; horretarako Kultur etxeak gela bat uzten digu eta hilean behin ipuin kontalaria zeinu hizkuntzaz eskaintzen du. Auzoko beste hainbat eragilerekin ere izan dugu elkarlana: Antxeta aisialdi taldeak bere ekimenak ume gorrentzako ere egokitu ditu; Lauaizeta institutuak eskolaz kanpoako jardueretan zeinu hizkuntza ikastaroak eskaini; Porrontxo jai batzordeak jai egitaraua gurekin adostuta; Jaialai elkartearekin zeinu poteoa antolatuta... Pixkanaka, denon artean, pertsona gorrek baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko espazioak irabaziz goaz, Egia inklusiboagoa sortzen ari gara. 2024an elkarlanerako guneak sortzen eta denontzako beharko lukeen Egia eraikitze bidean jarraituko dugu. **Segi eskuak astintzen!**

La sordera es una discapacidad socialmente invisible, y a todas las personas que la sufren les afecta en un aspecto: pierden comunicación y eso mismo las aísla. Hace seis años que Egia Zeinuka trabaja en el barrio por la integración de las personas sordas, por crear espacios donde las personas sordas y oyentes se puedan comunicar. Zeinu poteo, cursos de lenguaje de signos... Colaboramos con agentes del barrio para que adecuen sus actividades a las necesidades de las personas sordas: con el grupo Antxeta de tiempo libre; con Lauaizeta Institutua; Porrontxo jai batzordea; asociación Jaialai. Poco a poco, vamos creando espacios donde las personas sordas puedan participar con más facilidad.



2023-2024 Zineforuma

Ikasturte honetan ere Egia Bizirik auzo elkarteak antolatzen duen Zineforuma bere emanaldiak eskaintzen ari da ohiko ordutegian, **hilabete bakoitzeko bigarren edo hirugarren asteazkenez (hilabeteko jaiegunen arabera), arratsaldeko 17:15etan**. Filmaren ondoren solasaldia izaten da. Gonbidatuta zaudete!

El Zineforum de Egia continúa con sus proyecciones y posterior tertulia en el horario habitual: segundo o tercer miércoles de mes (según los días festivos del mes), a las 17:15.



Kaleko Afari Solidarioak (KAS) BIZIRIK

Berri pozgarri batekin iritsi da KAS 2023ko udazkenara, aurri begira bizirik jarraitzeko borondatearekin! KASen 1. asanblada orokorraren erabakia izan da, eta taldeko partaideak (Egia, Alde Zaharra eta Amara) oso pozik gaude, ez baitzen erraza erabakia KASen biziraupenaren alde ateratzea, ahulezia eta gabezia asko tarteko. Arrakastaren erantzuleak, neurri handi batean, Joxemi Zumalabe fundazioko kideak izan dira; batetik KASen behar eta nahiak entzun, ulertu eta egituratu zituztelako, eta, bestetik, asanblada diseinatu, prestatu, antolatu eta gidatu zituztelako. Biziki eskertzen diegu emandako bidelaguntza ederra.

Ozen diogu instituzio publikoek hiriko pertsonen gosea asetzeko ardura beraien gain hartu arte, KASek bizirik mantentzeko nahitasuna duela. Baina horrek badu baldintza bat: KAS berrantolatu eta sendotzea. Hori lortzeko, KASek zu behar zaitu, egitar jator hori! eta parte hartzea gonbidatzen zaitu, edozein dela ere ekarpena. KASen desira da elkarrekintzan, elkartasunezko ekimen kolektiboa odolberritzea eta indartzea.

Berri tristeak ere badira, kasu, auzoan azken boladan ematen ari diren gertakari hainbat. KAS jakitun da, eta elkartasuna adieraztearekin batera, erakundeei eskatzen die egoera horiekin amaitzeko esku-hartze integralak aktibatzea.

La iniciativa ciudadana Kaleko Afari Solidarioak (KAS) está muy contenta porque el resultado de la 1. asamblea general (KAS Egia, Parte Vieja, Amara) llevada a cabo este otoño ha dado como resultado la voluntad de seguir con la actividad. Es un éxito teniendo en cuenta las dificultades, debilidades, cansancio, etc. del grupo. KAS agradece enormemente a la fundación Joxemi Zumalabe la ayuda desinteresada prestada en la organización, diseño, preparación y dirección de la asamblea. Todas las personas de KAS salimos reforzadas de la asamblea. Pero aún y todo, KAS necesita reforzarse para seguir con su labor, y para ello invita a todas las personas del barrio a que se unan a la iniciativa solidaria colectiva. Cualquier aportación es bienvenida. Por otra parte, KAS es consciente de los incidentes que han sucedido últimamente en el barrio y muestra su solidaridad con las personas afectadas, al mismo tiempo que pide a las instituciones públicas que activen intervenciones integrales para solucionar estas situaciones.




Kalean bizi den jendeak egunean behin zerbait beroa jan dezan sortutako zaintza talde herritarra. Etxean afariak kozinatu eta gauero banatzen ditugun Egiako bolondres taldea.

Grupo ciudadano creado para que la gente que vive en la calle coma algo caliente una vez al día. Voluntariado de Egia que cocina cenas en casa y las reparte cada noche

ESKERRIK ASKO EGIA!
MUCHAS GRACIAS EGIA!

Teila Fabrika

Elkarlana, ekonomia soziala, eraldaketa, kultura eta feminismoa ardatz dituen proiektuen etxea da Teila Fabrika: elkarlanean ekiteko espazioa. Duela 4 urte eta erdi jarri zen proiektua martxan Egia auzoan eta ordutik eragile eta proiektu ezberdinek egin dute Teila Fabrikako espazioa eta komunitatean lan egiteko hautua. Egia auzo bizia izanik, bertan lanean diharduten eragile ezberdinekin saretu eta ekimen ezberdinak aurrera ateratzeko bidea ere egiten ari da Teila Fabrika: bizilagunen kezka identifikatuz eta gai zehatzei buruzko lanketak garatuz. Ikuspegi eraldatzailea duten kultur sortzaile eta ekimenentzat ere ateak zabalik ditu Teila Fabrikak eta elkarlan honetatik agenda askotarikoa eta aberatsa garatzen dugu.



TEILA
FABRIKA

Elkarlanean ekiteko
eta konektatzeko
espazioa



Gora Egia!

Goraegia.eus auzoko plaza birtuallak hazten jarraitzen du eta jada auzoko eragile gehienek erabiltzen dute haien ekimenak sarean zabaltzeko.

Auzoa txikia da baina hamaika ekimen herrikoi dago hilabetero; jaiak, asanbladak, azoka, mobilizazioak, tailerrak, mendi irteerak... Ez da erreza guztien berri izatea eta horretan laguntzen ari zuten da Gora Egia!, erakusleho baka-rean bilduz deialdi eta albisteak. Ohiko hedabideetan ez bezala eragileek bidalitako testuak osorik eta unean bertan argitaratzen dira webgunean, atxikitako kartel eta irudiekin. Ondoren Gora Egia! arduratzen da zabalpena egiteaz sare sozialetan, Telegram kanalean eta posta elektronikoko bidez.

Horretaz gain, izena emateko inprimakiak eta bideoak sar daitezke albisteetan, auzoko soinu ekipoa eskatu, eragile gida kontsultatu eta zerbait saldu, erosi edo trukatu nahi duenak iragarki bat jarri dezake. Animatu eta saltseatu!

Goraegia.eus es la plaza virtual del barrio. La utilizan muchos agentes del barrio para difundir sus actividades. Reune en su pagina web la diversidad de actividades que grupos de todo tipo del barrio organizan. Es un escaparate de lo que ofrece el barrio, y lo difunde por las redes, canal de Telegram y correo electrónico.



Ongi Etorri Eskolara Egian



Egia auzoan 2016tik dagoen Ongi Etorri Eskolara proiektuak 2023an ere lanean jarraitu du, auzoko familien arteko kulturarteko harremanak sustatzeko eta hezkuntza komunitatean kulturartekotasuna bultzatzeko, nola Aitor ikastolan ala Zuhaizti eskolan eta Maria Reina eskolan.

Aurten hainbat esku-hartze egin dira Egia auzo inklusiboa izan dadin. Beste herrialde batzuetatik auzora iritsitako familiak tokiko familiekin harremanetan jartzen dituen Familia Laguna programaz gain, guraso eta irakasleen formakuntzak auzoko hiru eskolekin egin dira, eta "Mila kolore" programa edo auzoko familientzako Egiako balia-bideen gida 5 hizkuntzatan. Honekin batera, Irutxuloko Hitzarekin lankidetzak ekimen berri bati ekin diogu, kultura aniztasuna prentsan ikusarazteko; halaber, Porrontxo jaietan elkarlana abiatu genuen Indiako Holi festarekin. Horrez gain, Bagera elkartearekin ekimen berri bat martxan jarri dugu: "Euskara, zure lagun hobereena". Honen bitartez, Aitor, Maria Reina eta Zuhaizti eskoletan Familia Laguna programan parte hartzen duten eta beste herrialde batzuetatik Egia iritsi berriak diren umeei euskara errefortzua eskaini nahi zaie aisialdiko ekintzen bitartez.

Aurten ere, kulturarteko auzo baterantz pausoak ematen!

El proyecto Ongi etorri eskolara, presente desde 2016 en el barrio de Egia, ha seguido trabajando en 2023 para fomentar las relaciones interculturales entre las familias del barrio y para impulsar la interculturalidad en la comunidad educativa en Aitor ikastola, Zuhaizti eskola y Maria Reina eskola.

Este año, se han realizado varias intervenciones para contribuir a que Egia sea un barrio inclusivo. Para eso, además del programa de acompañamiento "Familia Laguna", que pone en contacto a familias recién llegadas al barrio desde otros países con familias locales, se han realizado diferentes actividades en el barrio: formaciones para familias y profesorado, el programa "Mila kolore" con las tres escuelas del barrio, la guía de recursos de Egia para familias en 5 idiomas, la colaboración con Irutxuloko Hitzarekin para dar visibilidad a la Diversidad cultural en la prensa o la colaboración en las fiestas de Porrontxos con la fiesta Holi de India. Este año, hemos comenzado también una nueva iniciativa de colaboración con Bagera elkarte: "Euskera, zure lagun hobereena", programa de refuerzo de euskera a través del ocio y tiempo libre para los niños y niñas recién llegados a Egia de diferentes países que participan en el programa Familia Laguna de Aitor ikastola, Maria reina eskola y Zuhaizti eskola.

Un año más, idando pasos hacia un barrio intercultural!

Egia eskubaloi taldea

Egia eskubaloi taldeak aurrera egiten jarraitu du aurten ere. Beste urte batez gure historia handitzen joan gara, eta osatzen dugun familia eder hau indarrez dagoela esan daiteke. Gaur egun 120 nerabek eta 90 helduk jokatzen dute eskubaloian, eskaintzen diren kategoria ezberdinetan. Honetaz gainera, astebururo Egiako kiroldegia zaretuz betetzen da, harmaila alaituz eta auzotarrak animatuz. Datorren urtean ere kirol eder honetaz gozatzen jarraituko dugu, eta batez ere jokalaria, zaletu, senide eta lagun denen artean sortzen den giro ezin hobez disfrutatuz! Gora Egia!



EGIA K.E.

El club de balonmano Egia Eskubaloia continúa haciendo historia, con 120 adolescentes y 90 jóvenes alegrando las gradas del polideportivo.

Gabonetako erosketetan auzoko komertzioetan egin apustu

HEGIAN

Un año más, los y las comerciantes de la asociación integrada en Federación Gipuzkoa Merkataria, hemos coordinado una Campaña de Navidad con el objetivo de agradecer a nuestros clientes y clientas su fidelidad y recordar que realizar sus compras navideñas en los establecimientos del barrio, es la mejor opción para mantenerlo vivo y que el beneficio se quede en nuestro entorno.

Hasta el próximo 5 de enero, por comprar en alguno de los establecimientos que serán fácilmente identificados con cartelería, participarás en el sorteo de una cesta ecológica y un vale de 30€ por comercio.

Gainera, ezusteko opari bat jasoko duzu (izakinak agortu arte).

Kanpaina honi sektore ezberdinetako 32 establezimendu gehitu zaizkio: optikak, be-lar-dendak, ehun-dendak, higiezin-dendak, etxetresna elektrikoen dendak, altzariak, inprentak, liburu-dendak, ile-apaindegia, argazkiak, bizikletak, bazarrak, maskotak, harategiak, motorrak, zeramika, estankoa, burdindegia edo musikakoak.

Por otra parte, hemos grabado un vídeo de sensibilización que difundiremos en las redes sociales de la Asociación (@hegian.asociacion).

Horretarako, Harkaitz Cano idazlearen laguntza izan dugu, erosketak egiten ditugun lekuak baino gehiago garelako gogorarazten digun testu bat idatzi baitu. Entzumena gara, lotura afektiboak, istorioak.

Porque sin nosotros, todos los barrios son iguales. Nuestras puertas están abiertas... y lo seguirán estando, si tú quieres.

Donostiako Udalak eta Donostiako Sustapenak diruz laguntzen dute kanpaina.

Autobusen mobida



Udalak 9 eta 42 autobus lineak aldatu zizkigun urrian. Aldaketek egitarren haserrea eragin zuten:

- Ibilbide berriek hirigunetik aldentzen dituzte egitarren: Alde Zaharretik, Bretxako merkatutik, udaletxetik, Kontxako hondartzatik...
- Ibilbide berriek zaildu egiten dute linea batetik bestera aldatzea.
- 42. lineak aurreko ibilbidearen zati bat galtzen du, eta erabiltzaileak, adibidez, Zurriolako hondartzatik urruntzen ditu.

Egia Bizirik-ek, herritarren nahiei erantzunez, sinadura bilketa sustatu zuen. Bi astetan 2.000 sinadura baino gehiago bildu ziren. Abenduaren 5ean idazki bat aurkeztu zuen udaletxean, sinadura guztiekin.

En dos semanas se recogieron más de 2.000 firmas contra los cambios de las líneas de autobuses. Egia Bizirik las ha presentado en el ayuntamiento, pidiendo que se vuelva a la situación anterior a octubre.

Espekulazioa Egian

Aguien pensaba que en Egia ya no cabían proyectos inmobiliarios, porque no hay sitio. Pues no. Está lo que llaman la "regeneración" de Aldakonea. Hace dos años conseguimos parar el proyecto, pero volverán a empezar. Ahora han lanzado otra primicia: proyectan tres torres de quince pisos en Mundaiz, al lado de Gladysenea. Claro, ni los pisos de Aldakonea ni los de Mundaiz serán baratos.

Osasun publikorako eskubidearen defentsan

Egia Bizirik auzo elkarteak, Osakidetzaren egoera dela eta, bat egin zuen osasun profesionalen protestarekin. Gero eta luzeagoak dira itxaron-zerrendak espezialistentzat, ebakuntzetarako... Osasuna pribatizatzen ari dira, negozio bihurtzen dute.



KOLABORAZIOAK COLABORACIONES

Geltokiko lanak... eta pasabidea

Geltokiko lanak aurrera doaz; eta amaitzeko epeak ere luzatzen eta luzatzen. Orain diote lanak 2025era arte luzatuko direla. Pasabidea jasaten jarraitu beharko dugu.



MANIFESTAZIOA
maiatzak 21 de mayo - Easo plaza 12:00

DONOSTIA
EZ DAGO SALGA!
¡NO ESTÁ EN VENTA!

Hiri-eredua aldatzea premiazkoa da.
Donostia berreskuratu!

Es urgente un cambio de modelo.
¡Recuperemos la ciudad!

Alto XXI herri ekimena - Amara Bai auzo elkarte - Ancora - Añorga Txikiarriak auzo elkarte - Antónegi herria Ba Gera - Betartz 2 Gertu - Bideleta auzo elkarte - Bidea - Bizilagunak - CDO sindikatu - Dendetan Donostia Bizirik - Egia Bizirik Auzo Elkarte - Eguzi - Ekologistak Martxoan Gipuzkoa - Erdian Bizirik auzo elkarte Erausketaren aurkako mugimendua - Erriberak Martxoan auzo elkarte - ESK sindikatu - Fridays for Future Greenpeace - Goseko Hondarpe auzo elkarte - Hiritzale - Hiri Kultur Elkarte Intziri neska gazte taldea - Kalapio - Kalatezak Stop Desahuzio Donostia - LAB sindikatu Larraño Diteguna auzo elkarte - Manutene bizirik - Naturkon - Oletako auzo elkarte Oletarrak - Ondare SS Parkea Bizirik - Parte Zaharretan Bizirik auzo elkarte - Pizte Donostia - Sareaz - Satorralaia - SOS Manteo SOS Arrazketa Gipuzkoa - Steilas sindikatu - Surfider Foundation - Uliako Auzo Elkarte - Uliako Lore Baratzak

Astiñene baserria

Astiñene baserria erortzen ari da. Hobeto esanda, erortzen uzten ari dira. Mila aldiz esan dugu udalean. Entzungor.





ETOR ZAITEZ GUREKIN MENDIRA!



Plaza Haundi
(Luis Martin Santos Plaza, z/g.)
20012 EGIA - DONOSTIA
www.aitzarte.com
aitzartemet@gmail.com

Iraila	23 eta 24 Pirineoak
Urria	01 "Erdigunea" 15 "Finalista eguna" 22 Madariaga - Erlo - Xoxote - Azpeitia
Azaroa	12 Iruztun 26 "El bosque encantado"
Abendua	16 eta 17 Irura - Alkiza - Otabardi (babarrun jana Otabardin)
Urtarrila	14 Delika arroila
Otsaila	04 Besabi - Adarra - Onddi - Muliskogaina - Hernani 25 Altsasuko basotik zirkularra
Martxo	03 "Ibilaldi Neurtua" 17 Soldokogaina
Apirila	07 Albi - Tuturre - Baraibar 21 Osinberdi ur jauzia
Maiatza	12 Udalaiz Udalaiz 25 eta 26 Arantza
Ekaina	16 Trinidad - Irunberriko arroila

Egialai



2022aren amaiera aldera taldetxo bat elkartzen hasi ginen auzoan Euskal Pilota elkarte bat sortzeko. Aski gogo zegoenez, Egialai elkarte sortu genuen. Egian bertan egin nahi dugu kirola, bertako kirol-instalazio publikoak erabili eta auzoari eskaintza berri bat eginda. Badakigu ez gabela frontoiaren erabileraz kezkatzen garen lehenak, eta horregatik, umiltasun osoz gatoz, aurrekoek egindakoetatik ikasi nahian eta aitzina egiteko gogotsu.

Kirola egin nahi dugu, bai, baina balore batzuetan oinarrituta: batetik, aisialdi eredu ezberdina sustatu nahi dugu, kiroltasunez, gozatuz eta errespetuz; bestetik, kirola euskaraz egin nahi dugu, euskara gure bizitzako arlo guztietarako baliagarri zaigula sinesten dugulako eta horrela egitea bultzatu nahi dugulako.

Halaber, emakumeen ahalduntzea bultzatu nahi dugu, beren autonomia eta motibazioa sustatuz, eta auzoko sareak eta komunitatea ere indartu nahi ditugu.


Hamaika ikastaro eta jarduera egin ditugu: haur txikiak eta helduentzat, emakume taldeentzat ikastaroak, Porrontxoetako txapelketa... Hainbat modalitate sustatzen ere ahalegindu gara: zesta-punta, pala, eskuz... Autogestiorako hainbat ekimen ere burutu ditugu: bertso bazkaria, garagardotegia, bazkidetza kanpaina... Oso eskertuta gaudela auzoak izandako erantzun itzelarekin; oso babestuta sentitu gara eta eskerak eman nahi dizkizuegu guztioi.

Pozik eta gustura gaude egindakoarekin. Antolaturiko ekintzen arrakastak eta parte-hartze datu handiek (100 lagun baino gehiago ibili baikara frontoian) erakutsi dute Egialai frontoi publiko eta ireki bat behar duela; berandu baino lehen, Udalak prest beharko du egon arazo honi irtenbidea emateko. Bitartean, Egian eta alai, frontoiaz gozatzen jarraituko dugu!

Egialai es la asociación de pelota del barrio, creada este mismo año. Fomentamos la práctica en diferentes modalidades, en euskera, motivando a las mujeres, con el objetivo de disfrutar de la pelota con deportividad y respeto.

Tren a la frontera. TXOKO BERRI

Desde que era un niño me han fascinado los trenes y las grandes estaciones de ferrocarril. Hubo un tiempo en el que los Jefes de Estación, con un kepis de Mariscal de Campo y una banderola roja que envolvía un asta de madera, marcaban la salida a los trenes con un seco golpe de silbato. En la Estación del Norte de San Sebastián, el pitido y un imperativo movimiento del bastón de mando rojo era realizado junto al edificio del Hotel Terminus. En el instante en el que el toque se perdía en el aire, el tren arrancaba pesadamente hacia la frontera. La seriedad de la actuación se veía acrecentada por la solemnidad que le aportaba al escenario aquel nombre en latín... Terminus. En la planta baja del hotel, una amplia y luminosa cantina de grandes ventanales permite hacer más agradable el tiempo de espera; comida, bebida, lectura, juegos o compañía reducen la ansiedad que generan los viajes. En ocasiones en Txoko Berri experimento sensaciones similares: la de estar disfrutando en la Cantina del Terminus de esos pequeños placeres en buena compañía mientras llega mi tren a la Frontera. Quién sabe si un día cualquiera el Doctor Zhivago, con sus maletas, aparecerá por Río Deba a tomarse un cafecito.



ALDI JOANA EZ DA ITZULTZEN

Ttan Ttakun irrátia

25 urte eta gehiago daramatza Ttan Ttakun irratiak uhinetan. 24 orduko programazioa du, irratsaio, errepikapen eta musikaz osatuta, 107.2 FM lehenengo kanelan eta *streaming* bidez ttantakun.eus orrian. Bigarren kanela ere entzungai dago 107.7 FMn, eta laster, moldaketa teknologikoak medio, bigarren estudioa martxan jarriko dugu, non podcastak bideoekin ere sortuko ditugun. Ateak irekita ditugu auzotar guztientzat eta denok ongi etorriak izango zarete Ttan Ttakun irratiara, dela irratsaio bat egiteko edo beste edozein modutan laguntzeko.

Ttan Ttakun Irratia es la emisora de radio del barrio, y emite en dos canales: 107.2 FM y 107.7 FM. Pronto pondremos en marcha el segundo estudio, donde crearemos podcast y videos. Ttan Ttakun tiene las puertas abiertas a toda la gente del barrio, y sereis bienvenidas tanto para hacer un programa como para echar una mano.

donostiako
irrati
euskaldun
librea
++Ttakun

Txondorra

Txondorra kultur elkarte Ametzagaina kaleko 60. zenbakian dago, eta garai bateko Aitor ikastolaren egoitza da. Bertan euskara eta kulturarekin lotutako jarduerak bultzatzen dira: musika, irrátia, aisialdi, eskulan tailerrak eta beste. Irekia dago mundu guztientzat eta bertan parte hartzea eta berau erabiltzea bultzatzen dugu. 10 urte daramagu ekitaldiak antolatzen, eta proposamen berrietara irekita gaude, beti ere euskara ardatz. Informazio gehiago txondorra.net atarian.



La asociación cultural Txondorra lleva 10 años promoviendo actividades relacionadas con la cultura y el euskera: música, radio, tiempo libre, manualidades, etc. Tiene su local en Ametzagaina nº 60. Esta abierta a toda la gente del barrio. Para mas información: txondorra.net



Te invitamos a acudir a las reuniones de **EGIA BIZIRIK** en Blas de Otero plaza, 1
Si tienes ganas de echar una manita, te esperamos los primeros y terceros martes del mes a las 19:30 de la tarde



Egia bizirik
EGIAKO AUZO ELKARTEA